

## Baketik-en bideoteka

Baketik-ek geurekin eta besteekin etikoki bizitzearekin zerikusia duten filmen eta dokumentalen bideoteka bat sortu du. Helburu hezigarria dauka soilik, ez komertziala. Baketik-ek doan uzten dizkie pelikulak eskatzen dituztenei: ikastetxeak, aisialdi taldeak, parrokiak, GKEak, mota guztietako elkarteak, familiak, lagun taldeak... Pelikula bakoitzak hau bezalako gida lagun taldeak... Pelikula bakoitzak hau bezalako gida didaktiko bat darama. Edukiari buruzko azterketa eta gogoeta erraztea du xede. Gida bakoitzean pelikula ikusi duen Baketik-eko kolaboratzaile batek bi atal egin ditu: «gaia» eta «galderak pelikula ikusi aurretik eta ondoren». Hau da pertsona honek pelikula ikusteko egiten digun iradokizuna. Nahi izanez gero, zeuk ere parte har dezakezu gustatu zaizkizun zenbait pelikulen iritziak bidalita. (Informazio gehiago [www.baketik.org](http://www.baketik.org) webgunean)

## Gaiak

### Gatazka, giza duintasuna, bizitza

**Gatazka.** Geure buruarekin eta geure kontzientziarekin aurrez aurre jartzera eta hautatzera garamatzaten gatazken konplexutasuna erakusten du pelikulak.

**Giza duintasuna.** Bidezkoa iruditzen zaion arrazoiaren aldeko borrokan pertsonaren duintasuna erakusten du pelikulak. Borroka hori arma bakarrarekin eginez: nekazetasuna eta behin eta berriz ekitea.

**Bizitza.** Jende xumeenarentzat hil edo biziko arazoa den uraren pribatizazioarengatik gatazka bat eta pertsonak bizirik irauteko hartu behar dituzten erabaki ausartak eta zailak erakusten ditu pelikulak.

### Filma ikusteko eta entzuteko iradokizunak

Pelikula bat modu askotara ikus eta entzun daiteke. Erreferentzi puntu batzuk eskaintzen ditugu. Zehazki pelikula modu honetara ikustea eta entzutea iradokitzen dizugu:

**...barrura begira.** Gutako bakoitzari esanguratsu egiten zaigun horri buruz eta gure bizitzan bertan sorrarazten dizkigun galderi buruz hausnartu. Helburua ez da betirako erantzunak aurkitzea, uzten dizkigun arrastoei erreparatzea baizik.

**...kanpora begira.** Taldean edota familian elkarrizketa sustatu. Kontua ez da ondorioetara iristea. Hauteman eta sentitu duguna konpartitzea, eta besteen hautemate ezberdina entzuten eta ulertzen saiatzea da.

**...ez bakarrik arrazoiarekin, baita bihotzarekin ere.** Une batez aurreiritzi ideologikoak eta edo aurrez ditugun ideiak albo batera utzi, pelikulak kontatzen digun horren harira, sentimenduek hitz egin dezaten.

**...eta denbora baten buruan, berriz ere pentsatu.** Adi erreparatu egun batzuen ostean pelikulak utzitako arrastoari. Arrasto hori ikusi dugunari buruzko hausnarketak eta istorioak gudan hartu duen biziak sortutako inpresioa da.

### Zenbait galdera...

#### ...pelikula ikusi aurretik

- Gatazkei buruz: Zer da norbere buruarekin gatazka bat izatea? Zer da etika? Zein da gatazka egoera batean erabakiak hartzerako orduan etikaren zeregina?
- Giza duintasunari buruz: Zer da giza duintasuna? Pertsona guztiek ba al dute giza duintasunik? Pertsona guztiak berdinak al dira giza duintasunean?
- Bizitzari buruz: Zer dira oinarrizko beharrak? Ura oinarrizko beharra al da? Zein ondorio izango lituzke honen pribatizazioak? Nola eragingo lioke pertsonen bizitzari?


#### ...pelikula ikusi ondoren

- Zer esanahi dute Montesinoren pertsonaiaren hitzek 1512ko sermoia antzetzten ari denean: «Zeuen erruarengatik hiltzen ari dira; edo hobeto esanda zeuek hiltzen ari zarete»? Zein paralelotasun dauka 2000. urtearekin?
- Zergatik egiten dituzte indigenek uraren sitemaren pribatizazioaren aurkako protestak? Zergatik da hain garrantzitsua berentzat ur-sistema mantentzea?
- Nola aldatzen da Costaren jarrera? Zergatik?
- Zer ematen dizute aditzera Danielen azken hitz hauek «Beti da zaila, nahiago nuke beste biderik egongo balitz»?
- Zer oparitzen dio Danielek Costari? Zer esanahi dauka?

Aintzane Ziarretaren laguntzarekin.

Cine para *vivir y convivir*

# También la lluvia



## También la lluvia

### Fitxa teknikoa

JATORRIZKO IZENBURUA: También la lluvia.

URTEA: 2010.

IRAUPENA: 99 min.

HERRIALDEA: Espainia.

ZUZENDARIA: Iciar Bollain.

AKTORE-ZERRENDA: Luis Tosar, Gael García Bernal. Karra Elejalde, Jaun

Carlos Aduviri, Raúl Arévalo, Cassandra Ciangherotti, Carlos Santos, Dani Currás, Vicente Romero.

EKOIZPEN-ETXEA: Morena Films.

### Sinopsia

Costa zinema-ekoizle sinesgabea eta Sebastian zuzendari gazte ameslaria elkarrekin ari dira lanean Bolivian filmatu behar duten egitasmo handinahian. Amerikara iritsi ziren espainiarrei buruzkoa da egin behar duten filma eta bertan basakerian eta ezpatei eta kateei hitzekin kontra egin zieten Elizaren zenbait kideen adorean jarriko dute arreta. Baina Costak eta Sebastianek ezin dute imajinatu Bolivian, beren Santo Domingo zinematografikoan, sakoneraino kolokan jarriko dituzten erronka bat dutela zain. Uraren Gerrak eztanda egin ahala (2000ko apirila) baten uste sendoak eta bestearen arrotzea pitzatzen hasiko dira, kontrako zentzuan bidai emozionala egitera behartuta.

baketik

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO  
LEHENDAKARITZA PRESIDENCIA  
Baketik eta Elakidetzarako Sekretaria General para la Paz y la Convivencia  
Bakimena eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

baketik

943-251005

[www.baketik.org](http://www.baketik.org)